

ZENBAT BURU

gVidi iLAU LthOid

ERREPORTAJEA

Postarien lanbidea

GEHIGARRIA

rxikiBARREN

UDALETXETIK

Oinezkoentzako
bide berria Lerungo
industrialdera
joateko

KIROLA

,zgo,12 mora,
E-uskadiko judo
neldlina

KULTURA

Yanta Ageda eskea

GAZTAROA

Jxue eta Antton
Alberdi literaturzale
gazteak

BARREN

2000ko otsailaren 11a
VIII. urtea - 308. zkia

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A



Postariak aro digitalean

"Ez dago eskutizik iristen ez den tokirik"



ARAMBURU

BITXIDENDA

Gabonetan zozketatutako urrezko bi erlojuen irabazleak German Pedrosa eta Angel Uribe izan dira. Mila esker bezero guztiei eta zorionak irabazleei.



MERKATALGUNEKO DENDAK


**AIWA MINIKATE BATen, ZIGARRO HABANO KAXA BATen,
BI JATORDU BEREZIREn eta LORE ZENTRU BATen**

zozketa

1.000 pta.ko erosketa bakoitzeko
Martxoaren 18an arratsaldeko 18:00etan

Hilabeteko epean zenbaki saritua agertzen ez bada, erretserbako zenbakia kaleratuko da.

LERUN
KAFETEGIA-JATETXEA



Ierun, 6 • Tel. 943 74 31 96



gor galedttif Tufa
01)(lfita OPIe4a dat

ik a la
I ore apaundurak

Ierun, 6 • Tel. 943 74 45 16

PRENTSA ALDIZKARIA



Lotoa, kiniela
eta primitiba
seilatzen ditugu.
(Ganeko 21:00alt arte)

Ierun, 6
Tel. 943 74 44 23



MARITXU LOIOLA

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

Bakoitzaren lanbidea

Letrak bide ematen didan praktika zoragarriaz baliaturik, ez dut ezer berririk azalduko. Hainbat aldiz esan ohi dena berriz diot: bakoitzaren egitekoan, alegia, norberaren izaerak duen garrantzia.

Gaur egun lanbideak asko dira, baina egiteko hori behar bezala betetzen dutenak nekez aurkitzen dira. Kontuan izan, adibidez, adin batera helitzen direnean, irakasle gehienak umeen oihi eta egonezinarekin burutik jota gelditzen direla; baita ganaduren bat gaixorik izan eta albaiteorari deitzen dion baserritarrak ez duela txanxtetarako gogorik. Zer esanik ez erakunde ofizialetako leihatiletara joan eta mutur serioarekin gure galderari erantzuten diotenean. Errespetuz eta behar bezala entzutea, lanbidearen gainetik dagoen zerbait da, eta bakoitzaren izaerari dagokio.

Oraingo honetan eta nik neuk bizi izan dudana zerbait aipatu nahi dut, medikuen jokoera, alegia. Izan ere, medikuak askotan bere egitekoa ezezik, psikologoarena ere egin behar izaten du. Medikuek bere kargu dauden gaixoak lasaitzea eta animatzea ezinbestekoa da, batez ere, ebakuntza bat gertatzen denean. Adibidez,

ebakuntza honen ondorio fisikoak nahiz anesthesiarenak adieraziz (botalarria, ito beharra, zorabioa...). Oso garrantzitsua da, bestalde, gutxi gorabehera ospitalean zentratu denbora egin beharko duen eta guztia ondo atera dadin ahaleginak egingo direla esatea. Hori guztia argitu eta gaixoa esnatzen denean, aurrez adierazitakoak lagundu egiten dio guztia errazagoa suerta dakion.

Gero eta gutxiago dira gaixoari ezer esan gabe errespetua jarri nahian mutu egoten diren medikuak. Gero

eta gehiago, alegia, gaixoarenganako jokabide ulerkordunak eta harrera onekoak.

Kontuan izan, pertsona bakoitzaren barrenean eta, batez ere, gaixorik dagoenean, beldurrez jositako ume bat izkutatzen dela. Horregatik bada, lehendabiziko botikak goxotasuna eta hurbiltasuna izan behar dira,


aurrekoaren aurpegi irribartsua beti baitugu gogoko eta gure medikuarena bada, askoz hobe.

Gizona bere isiltasunaren jabe eta esandakoaren morroi dela entzun izan dugu, hala eta guztiz, nire ezjakinean oinarrituz, berriz diot: lanbide bat hautatzerakoan bakoitzaren izaera aurrez kontuan izan behar dela. Besterik ez.

"Gaur egun lanbideak asko dira, baina egiteko hori behar bezala betetzen dutenak nekez aurkitzen dira"

"Errespetuz eta behar bezala entzutea, lanbidearen gainetik dagoen zerbait da, eta bakoitzaren izaerari dagokio".

Barrak, Birrak eta Barreak



©KOKO 2000

BaRREN



Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
s' 943 74 41 12
Publizitatea:
ri 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04

E-maila: barren@topagunea.com
Helbide informatikoa:
www.ihardun.com/barren

AnormauzAILEA	Elgoibarko Izarra
LAGUNTZAILEA	Elgoibarko Udala
KAZETARIAK	Irati Agirrezaldegi, Jon Eugi, Asier Orbea
PUBLIZITATEA	Maitane Clid
MAKETATZAILEA	Bea Ansoña
AOIWNISTRAZIOA	Amaia Marthn
GERENTZ/A	Flafa Alvarez, M. Angeles Ortuoste.
KOLABORATZALLEAK	Ainhoa Andonegi, Aitor Argarate, Idoia Arozena, Aitzol Arriola, Martin Dominguez, Juanito Gorostiza, Arnaitz Gorriti, Ion Gurrutxaga, KOKOE, Imanol Larrañaga, Aintzane Larrea, Ion Eoiala, Ongard Zine Kluba, Iffigo Otaño, Jon Peli Uriguen, Iban Urizar, Amaia Urzelai, Maite Vallejo, Lourcles Zubiaurre.
EUSKARA ZUZENTZAILEA	Ibon Arriola
BANAKETA ARDURADUNA	Imanol Larrañaga
1NPRIMATEGIA	Gertu Koop. E.
TIRADA	4.000 ale
LEGE GORDAILUA	SS-1.038/92
ISSN	1139-1855

*Elgoibarko Udalak, Eusko
Jaurlaritzako Kultura
Sailak eta Foru
Aldundiak diruz
lagundutako
aldizkaria.*



REE *gizarte-ekintza
obra social*

4 DANOBAT

44 GOITII
GRUPO DANORAT

Eskerrak guztioi

Lerro hauen bidez urtarrilaren 28an, Bosko Eguna ospatzen lagundu ziguten Agerre baserriari, Gurutze Gorriari, UdaI Patronatuari, Udaletxeko langileei eta 'Azkena' dantzalekuko lagunei gure eskerrik beroenak luzatu nahi dizkiegu.

Elgoibarko Herri Institutua

ISanloi dela eta...

4r7er da hori, santuren bat? Bai, **L-i**loaren santua izango da..." Hala pentsatuko zuen zenbaitek izen bixi hori entzutean. Izan ere, zer esan nahi du `SanIo'k? Ez al da behintzat nik pentsatu dudana izango, San Lorenzoren laburdura, alegia! Bai ba, halaxe da!

Egia esan, edozein talde edo erakunde bere buruari nahi duen izena jartzeko libre da, hori bai, baina Elgoibarko eskubaloi taldeari izen hori jartzea ere... Beste herri batzuetan, kanpoan, Elgoibar ordezkaturko duen neska-mutil talde batek `Sanlo' izena edukitzea penagarria iruditzen zait.

Ez al zegoen izen aldrebesagorik? Biraoa ez bada ere, hitz itsusia da oso; ez dauka inolako loturarik kirol talde horren jarduerarekin, ezta erreferentzia historiko edo kulturalik ere... Elgoibarko bailara hori gogora ekarri nahi bazuten, Ermuaran edo Sallobente ipintzea zeukaten!

Izena eta izana beti gauza bera ez direla badakigun arren, jarri izen itxurroa taldeari, eta suerte handia izan dezazuela kirol arloan.

J.K.S

Esker onak

Mintxeta Atletismo Taldeak esker onak eman nahi dizkie, V. Mintxeta Atletismo Saria burutu ahal izateko parte hartu duten pertsona eta erakunde guztiei, eta bereziki:

Jose Ma .Oruesagasti eta Ignacio Mugerza Udaleko zinegotziei, Gorka Sastre Pilar ikastetxeko ordezkariari, Ma Carmen Azpiazu Ikastolako ordezkariari, Iñaki Konde Arreiturre institutuko ordezkariari, Blaki insausti Herri Eskolako ordezkariari eta Musti Mujika Realeko jokalaria ohia eta Jogers etxeko arduraduna denari, sari banaketan gure artean izan zirelako. Gurutze Gorria eta Aterpe taberna ere aipatu nahi ditugu eta esker onak eman nahi dizkiegu beraien lan eskuzabala-rengatik.

Mintxeta Atletismo Taldea.

Esker mila denoi

ELGIOIBARKO IZARRA Kultur Elkartek eskerrik zintzoenak eman nahi dizkizue Santa Ageda bezperako eskean parte hartu zenuten guztioi. Eskerrak, bereziki, baserriarroi aurten ere zuen baserrietako atek zabaldu eta hain eskuzabal hartu gaituzuelako (nahiz eta baserri batzuetara ordu txikietan iritsi ginen). Eskerrak, baita ere, San Migeleko soziedadekoei, arkumea benetan ederra zegoen-eta; eskerrak Nava inprentakoei furgoneta Iaga zenigutelako; eta, azkenik, eskerrak antolatu genituen bi taldeetan parte hartu zenuten bertsolari (Meabe, Ziarda, Areitio eta Narbaitza), trikitilari (Baltzola anaiak eta Ekaitz eta Arantxa) eta korukoei, 15 ordu inguru tente eta kantuan aguantatzeagatik. Sei urte dira ohitura zahar hau berreskuratzeari ekin geniola eta, baserriarren artean duen estimazioa ikusita, datorren urtean ere baserri atarrietan izango gara kantuan eta eskean.

ELGOIBARKO IZARRAko
Santa Ageda taldea

BARRENez ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK alaletan adierazilakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon behar dute argilaratu ahal izateko, Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia.**



- "Olnezkoen segurtasunaz kezkatutako gazte batek honako kexa hau helarazi digu. "San Roke auzoan zebra pasabide baten beharra somatzen dut (Argazkia azaltzen den tokian). Bestela, buelta handiegia eman behar da errepeidea zeharkatzeko. Beste zebra bidearen gaineko aldetik zeharkatzea arriskutsua baita".

- Emakume batek honako kexa hau argitaratzeko eskatu digu. "Merkatu **Plazaren atzeko aldean dagoen zubi zaharrean** txakur kakak eta txiza ohiko kontuak dira tamalez. Hori dela-eta, zikinkeria garbitzeko eta usai txarra desagertarazteko mangera pasatzea beharrezkoa iruditzen zait, eta garbitzaileek halaxe egiten dute. Baina, Kultur Etxearen atzeko **sarbidea urez bustitzen dutenean, ur potzu handiak lagatzen dituzte, eta ezin da oinak busti gabe bertatik pasa**".



- "Herritar batek 'Netto' hipermerkatua txalotu nahi du. "Duela pare bat aste haurrentzako antolatutako jaia oso ideia ona iruditu zitzaidan. Haurrek primeran pasa zuten eta gurasook erosketak egiteko denbora libre gehiago izan genuen. Dena dela, zenbait gurasoren jarrerara ez zitzaidan batere gustatu, Nettokoek haurrentzat merienda-poltsak banatu zituzten eta gurasoek seme-alabak iladan bi edo hiru aldiz jarri zituzten poltsa bat baino gehiago hartzeko. Etsenplu horrekin kostako zaigu gure haurrak behar bezala hezitzea".

Ba al dakizu patinetan ibiltzen?

Afari edo gasari eder bat egin nahi al duzu?



atxutxi@zapatuetan

Lo egiteko zakurik ba al duzu?

at: LHko 4-5-6. mailak.

Noiz: otsailak 26, martxoak 11-18-25

Ordutegia: arratsaldeko 16:00etatik 19:00etara.

Prezioa: 3.000 pta.

Izena emateko 4 aisailaren 14tik 22ra.

Antoiazailerr
Elgorbarko Izarrako
ATXUTXIAMAICA B.T.



Laguntzaileak:
Elgorbarko Udala
Eulko Jaurilaritza




Elgoibarko Izarra K.E.
Ubitarte 4, behea
Tel.: 943 74 16 26

Postariak aro

Otsailaren 14an San Balentin edo maiteminduen eguna dela-eta, amodiozko gutunei buruzko erreportaje bat egitea pentsatu genuen. Betidanik bi pertsonen arteko amodioa adierazteko modu erromantikoenetakoa izan da eskutitz bat idaztea. Ideia izan eta berehala kezka bat sortu zitzaigun, ordea: amodiozko gutunik idazten al du inork gaur egun?. Telefono mugikor, Interneten eta ordenagailuen aro digitalean bizi gara eta ohitura asko aldatzen ari dira. Hori dela-eta betiko posta arruntak eta postariak etorkizunari nola aurre egiten dioten ikustea interesgarria izan daitekela iruditu zaigu. Ondorengo lerroetan postarien lanbideari buruzko hainbat xehetasun ematen ditugu.

Postari baten egunerokoa

Elgoibarko postetxean 11 lagunek egiten dute lan. 6 posta banatzeaz arduratzen dira eta beste 5 pertsonak, berriz, San Inazio 2an dauden egoitza bulego lanak egiten dituzte, hau da, eskutitzak sailkatu, telegramak idatzi eta jaso etab. Postariak goizeko 8:00etan sartzen dira lanean. 8:15ean ailegaten da Donostiatik eskutitz betetako kamioia, Donostian baita egoitza nagusia. Posta sailkatu ondoren, banaketarekin hasten dira. Elgoibar 6 zonaldetan banatuta daukate, eta postari bakoitzak zonalde bat izaten du bere ardurapean. Kale barruan 5 zonalde daude, eta 6. zonaldea baserriek eta herriaren kanpoaldean dauden enpresek osatzen dute. Azken zonalde honetan autoz egiten da banaketa. Eguerdiko 14:00etarako posta guztia banatuta izaten dute, nahiz eta banatu beharreko eskutitz kopuruaren arabera laneguna zertxobait gehiago luzatu daitekeen. Dena den, norbaitek eguneko posta lehengo jasotzea nahi izanez gero, postetxean dauden 220 kutxetako bat alokatzeko aukera dauka. Urtean 3.125 pta. ordaintzearen truke goizeko 10:00ak baino lehengo beraien kutxan sartuta izango dute posta, eta giltza dutenez, jaso zera joatea besterik ez dute. Zerbitzu hau enpresek erabiltzen dute gehienbat.

Liberalizazioa, postaren etorkizuna

Jabier Garate, postetxeko langileak esan digunez, "posta zerbitzuak erronka handiei aurre egiteko aurre datozen urteotan". Batetik, telefonoaren eta posta elektronikoaren kompetentziari aurre egiteko behar dio. Bestetik, 2003. urtean Europar Batasunean posta liberalizatu egingo da, eta nahi beste posta zerbitzu sortzeko aukera izango da. Jabierrek azaldu digunez, "gaur berrietara moldatzen ari gara, eta dauka azpiegitura aprobetxatuz datorrenari aurre egiteko moduan gaude. 65.000 langilez osatutako enpresa publikoa gara,



lagunek egiten dute lan Elgoibarko postetxean. Horietatik 6 dira posta banatzeaz arduratzen direnak, Elgoibar 6 zonaldetan banatuta baitago.

rnn iurvi,111



Ia ngile kopuruari dagokionez 2. enpresa publikoa, hain zuzen ere. Herri txikienetan ere posta bulegoak ditugu. Horri esker, zerbitzu unibertsala deitzen dena eskaini dezakegu. Hau da, ez dago eskutitzik iristen ez den tokirik, eskutitzak edozein tokitara bidaltzera behartuta baikaude. Zerbitzu hori eskaintzearren estatuak diru kopuru bat ematen digu. Liberalizazioa ailegatzean zerbitzu hori eskaintzen jarraituko dugula uste dut".



Eskutitzak sailkatzeko eta banatzeko aurrerapenak denbora aurrezteko ekarri dute postaren mundura.



Prezioa eta kalitatea

uropar Batasuneko edozein herrialde-tarara bidalitako eskutitz batek 3 egun behar ditu helburura iristeko (70 pta. ren truke). Estatu barruan, berriz, eskutitz normal batek (35 pta.) 3 egun be-

har ditu batz besteko edozein tokitara ailegatzeko. "Gure erronka preziorik baxue- nean kalitatezko zerbitzua eskaintzea da. Helburu hori lortzeko postetxeetako sail- katze eta banatze sistematan egin ditu- gun aurrerapenak funtsezkoak izan dira. Orain ez daukagu lehen bezala eskutitzei

data banan-banan jartzen ibili beharrik. Eguna idatzita daramaten seiluak ere sal- tzen ditugu. Bezeroei konfidantza eta erraztasunak ematea da garrantzitsuena. Kexa gutxi jasotzen ditugu eta hori izango da gauzak ongi egiten ari gare- naren seinalea".

Postaren abantaila eta desabantailak

Telefono konpainia eta posta elektronikoaren prezio eta bapatekotasunari aurre egitea zaila izango dela aipatu digu Jabierrek, "ohiko postak indarra galduko du, baina ez dut uste desagertuko denik. Momentuz jende gutxi du internet eta posta elektronikoa erabiltzeko aukera". Elgoibarren posta mugimendu handia dago, egunero 4.000-5.000 eskutitz inguru banatzen ditugu. Enpresa eta banketxe batzuk posta banatzaile pribatuak dinizten uren, Elgoibarren enpresa asko daude eta eskutitz kopuru handia mugitzen da batetik bestera. Gabonetan eta hauteskunde garaian, berriz, eskutitz kopuruak nabarmen egiten du gora". Jabierrek onartzen du teknologia berriari aurrean

desabantailak dituztela, baina ohiko postak dituen abantailak ere aipatu dizkigu, "Eskutitz bat idaztean telefono dei bat egitean baino gehiago pentsatu behar- dago. Horregatik sakontasun gehia izatercdtife" eskutitzek eta zenbaitzarZatarako egokigoak dira.

arruhtak-ndarta daitezke, estke, oBiko posta galduko du telefonoaren eta posta_elektrohikoaren aurretii-ba.lla e z da desagertzera iritsiko".

Gainerbehin'eta berriz irakurri jutMitatea babesteko aproposagoa da. Hoftegatik guztiagatik; giro -Posta14, fakturA eta telegramak oso egokiak dira postaz, bidaltzeko. Zerbitzu urgenteen alonean ere eskaintza zabala dugu. Postal espress zerbitzuarekin eskutitzak hiri batetik bestera 24 orduren

buruan bidaltzen ditugu eta edukia aseguratze eta Indemnizazioak jasotzeko eskubidea ziurtatzen ditugu".



Etorkinen kopurua naharmen igoko da datozen urteotan

Euskaldunok prel al gaude etorkinak gure arilean onartzeko?



CARMEN PEREZ
31 urte, zapataria

Euskal Herrian nahiko tole-ranteak gara eta ez dut uste arazorik egongo denik. Hala ere, momentua iritsi arte ezin da jakin zer gertatuko den.



MIREL LIZARRALDE
27 urte, psikologoa

Euskal gizartea orokorrean prestatuta dago immigranteak onartzeko, lehen ere batzuk izan ditugu-eta. Hala ere egongo dira arazoak emango dituzten nukleo txikiak.



ANTONIO FERNANDEZ
55 urte, aurre jubilatua

Baietz uste dut. Hala ere, hemen gosez egon eta kanpoko ematea ez nuke nahi. Beharra duen jendea piskanaka hartu beharko litzateke gure herrian.



JAVI SANCHEZ
35 urte, zinkadorea

Hona inmigranterik ez etortzea espero dut. Oso problematikoak dira eta guk ez dizkiegu arazoak konponduko. Gainera, hemen ere jende asko dago langabezian.



JUANITA ALZOLA
62 urte, etxeandrea

Danek nik bezala pentsauko balebe onartuko genitxuzke. Euren herrixan ez dauke bizi-modurik eta nezesidaiatik etorri dia hona. Gure aurrekuek ere zezeaitzik erten zeben.



MIKEL JURADO
19 urte, okina

Onartuko ditugula iruditzen zait. Egongo da bestelakorik pentsatuko duenik ere, baina nere ustez Ian bila datoz eta ez ditugu bota behar.

**Belaustegi
Baserria**

JATETXEA

ERRETSERBA EGITEKO

TeI. 943 74 31 02

*cSczn 53ct12ntin eyuna,
oiscilla 14, asleieliena*

*eixe219 aperiii6oa
gercluraixoen eni.safaciczz-e'in,
degusfaziorWA7*

*7aie-ier.rina ahctle-aroraiczzp.joarekin (elvean eyincz)
Asasiien Azzuelaimocz 6ieira, fanyoslino,
zapo efa ixangurroareliin
Solomila fourweck,-a oncici9ez gelea
(Were zetAtan errefa)*

Zaitzdazo i'rezna xr:garlua 6ascfrufelith

*prezioa
6. 900 "ola. + -75EZ (eciaria apa,r1e)*

Ekitaldi berezia - boleroak zuzenean!

ISPILUARI BEGIRA



(uei..C.A.B

stai'4

LERUN **jatetxekoa**

- Zer ospatuko zenuke txanpain kopa batez?
- Negozioa ongi doala.
- Mozkorrek egia esaten al dute beti?**
- Bai, mozkortutakoan soltatzten dira esan beharreko denak.
- **Bizitzako zein osagairekin egingo zenuke plater konbinatu bat?** - Familiarekin eta etxe batekin.
- Menua ala karta?** Karta nahiago, baina orain eguneko menua egoten da leku gehienetan.
- **Ur naturala bezalakoa ala gasduna zara?** Gasduna.
- **Zerbeza rubioa ala beltza?** - Rubioa,
- Eta emakumeak?** - Beltzaranak nahiago ditut.
- Tabernan telebista jartzearen aldekoa al zara?**
- Tabernan bai, baina jatetxean ez, elkarrizketa moztzen du.
- **Etxean nork prestatzen du bazkaria?**
- Tnork ere ez, jatetxean egoten naiz eta.
- Nor gonbidatuko zenuke bazkaltzera?**
- Lagunen bati esango nioke etortzeko.
- **Zer egiten zaizu likoreak bezain enpalagosa?** - Pertsonak.
- **Eta tekila bezalako garratza?**
- Pertsonak baita ere. Klase askotako pertsonak gaude, batzuek oso gozoak dira, besteak aldiz, erabat garratzak.
- **Barra barrutik beste modu batera ikusten al dira gauzak?** - Bai, bertatik pertsonen psikologia ikusten da.
- Nola uxatzen dituzu bezero pelmak?** - Kasurik ez egiten.
- **Zein da jendea jatetxera erakartzeko erabiltzen duzun tresna?** Atentzio egokia eskaintzea eta bezeroak zaintzea.
- **Txikitelaa desagertuko al da sekula?** - Baietz uste dut.
- Inoiz eskatu dizuten janaririk arraroena?** - Atzeritarrek gauza pikanteak eskatzen dituzte beti.
- **Eta edaria?** - Oraingo konbinatuak, orgasmoa esaterako.
- **Bazkal osteko kafea ala afal aurreko pintxoa?**
- Biak dira oso onak.
- **Ito al duzu inoiz maitasun arazorik alkoholetan?**
- Ez, ez naiz edalea.
- **Gogoan al duzu egindako azken parranda?**
- Bai, urtearen azken egunekoa.

Txandakako Enpresa Ingeniaritza

Enpresarekin lanean garatutako lanbide proiektua.
Lan kontratua lehen egunetik.

Bilera informatiboa

1=1 Otsailaren 16an, asteazkenean, bilera informatiboa egongo da prestakuntzaren ezaugarriak eta sarrera baldintzak azalduko direlarik.

O 17:30ean Makina Erremintaren Institutuko instalazioak bisitatuiko dira eta 18:00etan bilera informatiboa hasiko da.

Prestakuntza i kastaroa

□ Makina Erremintaren Institutuak ingeniaritza-probetarako prestakuntza ikastaro bat eskaintzen du. Ikastaroa, martxoaren 11tik maiatzaren 27ra izango da, larunbatetan 9:00etatik 13:00etara.

2000/2001 ikasturtea

• Makina Erremintaren Institutua
San Roke Auzoa, 1
20870 Elgoibar

■ Tel: 943 74 41 32
Faxa: 943 74 41 53
E- maila: ingenieria@fmh.es

Ordutegia:
08:00-13:00
14:30-17:30



Cesi 1111*11-211nVera



Alkatea, Eusko Legebiltzarreko giza eskubideen batzordeko arduradunarekin bildu da

Elgoibarko hiru preso politikoen gerturatzea eskatu dio Guillermo Garatek

Guillermo Garate, Elgoibarko Alkatea, Eusko Legebiltzarreko Giza eskubideen batzordeko Iñigo Urkullurekin bildu da, Elgoibarko hiru preso politikoen egoerari buruz hitz egiteko. Juan Mari Atutxak Mayor Orejari, Kartzeletako zuzendariari eta Frantziako ministroari gutun bana bidali die presoek gerturatzea, kondanaren 3/4 bete dutenen askatasuna eta preso gaixoen askatasuna eskatzeko. Hala ere, oraindik ez dute inolako erantzunik jaso eta Udaletako arduradunen usteetan, epe laburrean ez da presoek gerturatzerik edo askatasunik espero.

‘BATERA’ren deialdia

Bestalde, Euskal presoek Euskal Herriratzea eskatzen duen ‘BATERA’ plataformak, hamabostean behin, ostiraletan,



Batera' plataformak ostiraletako kontzentrazioetan parte hartzeko deia luzatu die herritarrei.

adierazi zuten BATERA plataformako partaideek. Sakabanaketa horren aurka eta euskal presoak Euskal Herriratzekeo zenbait ekintza egingo dituzte. Beraz, herritarren partehartzea ezinbestekoa denez, deia zabaldu dute plataformakoek.

arratsaldeko 20:00etan Plaza Handian egiten den kontzentrazio isilera joateko deia luzatu nahi die elgoibartar guztiei. EAJ, EH eta EA alderdi politikoek, ELA, LAB eta EHNE sindikatuek, Senideak taldeak, Gazte Asanbladak, EPEH plataformak, Errotatxok eta Elkarrik osatzen dute taldea. "Euskal preso politikoen bidegabekoa eta ilegala den sakabanaketaren luzapena ikusten ari gara, orain urtebete ireki zen prozesu politikoa oztopatzen saiatzen ari den gobernu espainiarraren eta bere barne ministroaren aldetik",

- **Babesik gabeko haurrak familietan hartzeko programa martxan da**

Gizartekintza Departamentuak, babesik gabeko haurren beharrak asetzeko programen artean, adingabeak familietan hartzeko zaintza programa eratu eta beraiei laguntzeko egitasmoa sortu du. Programaren helburua, haurrak konponbiderik gabeko egoeretara ez iristea da. Programarako eskaerak aurkezteko epea zabalik dago, eta interesa izanez gero edo informazio gehiago nahi baduzue Elgoibarko Udaleko Gizarte Ongizate Sailera jo dezakezue. (Telefonoa: 943 74 10 08).

"Euskal off 2050" antzezianak estimazio handia izan zuen Eigoibarren

Josu Mujika dantzari elgoibartarrak hartu zuen parte obra honetan

Toan den ostiralean, hilaren 4an, jende ugari izan zen Herriko Antzokian "Euskal off 2050" antzezlana ikusten. Elgoibarko Udalak "ARIGERA" proiektuaren bultzatzaileekin batera antolatuta zuten ikuskizuna eta jendeak txalo zaparrada batekin agurtu zituen 'Hika' taldeko aktoreak. Diapositibak, dantza, tragedia eta komedia arteko konbinazioa eskaini zuten eta bertaratutakoei irribarrea aterazieten behin baino gehiagotan. Josu Mujika dantzari elgoibartarrak, dantzarako dohainez gain, antzerkian duen trebetasuna ere azaldu zuen eta orohar gustura aterazi ziren Herriko Antzokira hurbildutakoak.



Komedia, tragedia, dantza, dokumentazioa eta antzerki poetikoa biltzen ditu 'Hikai' taldearen azken lanak.



Pilar Santosek eskuratu du Txankakuaren 325.000 pezetako saria

Joan den asteartean, hilaren 8an, banatu zituzten Txankakua Merkatarik Elkartek gabonetan egindako zozketaren sariak. Guztira, 400.000 pezeta eman ziren erosketa txeketan. Lehenengo saria Pilar Santos Albak irabazi zuen eta 325.000 pezeta jaso zituen Txankakuako dendetan gastatzeko diru txeketan. Bigarrena, Margari Lazkanorentzat izan zen eta 50.000 pezetako saria jaso zuen. AdoraciOn Yerrok irabazi zuen 25.000 pezetako hirugarren saria. Txekak Txankakua Merkatarik Elkarteko lehendakariak banatu zituen eta guztiak pozik agertu ziren irabazitakoarekin. Elkartek urtero egin ohi du Gabonetan bere dendetako bezeroen artean zozketa, beraz, datoren urtera arte zai egon beharko gara berriz ere horrelako aukera bat heldu artean.

• Txernobilgo umeak etxean hartzeko kanpainaren bilera informatiboa Bilbon

Elgoibarko UdaIak, Txernobilgo ezbehar nuklearraren ondorioak jasan dituzten umeak, Euskal Autonomi Erki-degoko familietan hartzeko kanpaina budtzatzeko asmoa du. Kanpaina honi buruzko bilera informatiboa, bihar, otsailak 12, arratsaldeko 17:00etan izango da Bilbon, Lehendakari Agirre kaleko 42. zenbakian. Bileran, kanpainaren ingumko informazioa emango dute eta bertan parte hartu nahi duten familiei eskaria luzatu ostean, elkartzeketa egingo zaie.

• Elgoibarko langile gazte bat hil da San Pedro bailaran zuhabz batek azpian hartuta

38 urteko langile bat hil zen joan den astelehenart, hilaren 7an, San Pedro bailaran, beste bi lankiderekin batera moztzen ari zen zuhaitza gainera erori zitzaionean. Honekin jadanik 12 dira aurten Euskal Herrian lan istripuz hildakoak. Istripua arratsaldeko 15:30ak inguruan izan zen San Pedro bailarako basoko pista baten aldamenean. Hiru langile ari ziren zuhaitzak botatzen eta zuhaitzetako batek 38 urteko D.G.G. langilea bete betean harrapatu eta momentuan hil zen. Istripua gertatu zen Iekura iristea zaila zenez Ertzaintzaren eta suhiltzaileen todoterrenoak behar izan zituzten. 2000. urtea hasi zenetik 12 lagun hil dira lan istripuetan Euskal Herrian eta horrek hainbat mobilizazio eta kritika eragin ditu, izan ere, hilabete hainbeste lan istripu izatea ez da gauza arrunta.



Herri Eskolakoak Bilbo inguruak ezagutzen izan ziren

Herri Eskolako ikasleek eta gurasoek, egun eder bat pasatzeko asmoz eta, bide batez, Bilbo eta bere inguruak ezagutzeko, irteera bat egin zuten joan den urtarrilaren 30ean. Guggenheim museoa bisitatu, eta kanpoko aldean argazki batzuk atara ostean, metroan ibiltzeko aukera izan zuten. Portugaleteko zintzilikako zubian alde batetik bestera pasatu eta Ereagako hondartzan ere izan ziren. Guztira 110 lagun joan ziren txangoan eta ederki pasa zuten Bizkaiko hiriburuan.

Ikastolakoak Gouretten izan ziren eskiatzen

Joan den urtarrilaren 22an, Ikastolako DBHieko ikasleak eta zenbait guraso Frantziako pirineoetako Gourette estazioan izan ziren eskiatzen. Autobusez joan ziren bertara eta elurretan gora eta behera gustura ibili ostean, arratsaldean itzuli ziren Elgoibarrera. Ipurdiko batzuk hartu arren egun eder bat pasa zutela esan digute.



• **Tube berri bat jarriko da kligez Narkizano auzoan ur zikinen arazoa konpontzeko**

Aurki horniketa lanak egingo dira Iñiguez Karkizano-ko etxebizitzetan. Datonen astean has daitezke bertan dagoen ur zikinen arazoa konpontzen. Zulo bat irekiko dute eta bertan hodi bat jarriko clute. Hodi horretan etxeetako ur zikin denak sartuko dira, bai Iñiguez Karkizano-ko bizilagunenak eta baita Urruzunokoenak ere. Orain artean etxeetako ur zikinak trenbide azpian irtetzen ziren. Paretean zula- ketak egin ziren nolako ihesa zegoen jakiteko. Baina, pareta ezin daiteke gehiago zulatu trena gainetik pasatzen baita. Beraz, trenbide pare horretan, tuboa jarriko da, eta etxebizitzetako kaineriak bertara joango dira. Lehen zegoen tuboa kendu eta zikinkeriak benetik joango dira.

Lerungo hipermerkatura joateko oinezkoen bide probisional egingo da martxoan

Pertsonak N-634 errepidetik ez joateko izango da pasabidea

Udalak Lerun aldean pasabide bat egitea enkargatu dio 'Altuna y Uria' enpresari. Enpresa hau Un'uzunoko etxebizitzaren inguruneak, kaleak eta urbanizazioa egiten ari da. Pasabide hau egiten martxoan hasiko dira eta Melitongo autobus geltokiko espaloitik Gallastegi garraio enpresaren ondoko rotondara bitartekoa izango da. Horrela, Lerungo industrialdera doazen pertsonak ez dira N-634 errepidetik joan beharko. Gaur egun, industrialderako bidean errepide ondotik doan espaloia, zati batean bukatu egiten da. Ondorioz, pertsona batzuek, hipenmerkatura oinez joaterakoan, errepide albotik joan behar dute eta horrek afriskua dakar. Bidexka honekin arrisku hori kentzea lortu nahi da.

Bide hau probisional egingo da, urrira artekoa bakarrik. Izan ere, hilabete horretan industrialdeko jabeek paseatzeko bide bat egin behar dute. Bide horrek N-634 errepideko espaloitik rotondara sarrera edukiko du. Ondoren, bideak entkaren parean Gallastegi enpresaren atzetik segituko du.



Bide hau probisional egingo da, urrirako industrialdeko jabeek berria egin behar dutelako.

Udalak errepideen ardura duen Foru Aldundiari idatzi bat bidali zion egoera azalduz. Handik, ordea, ez da erantzunik etoni. Hori dela-eta, erabaki probisional hau hartzea pentsatu dute. Beraz, orain dagoen bidezidorra hobetu eta txukundu egingo da, eta ez da gastu gehiago egingo, ez daukalako zentzurik probisional egingo den zer baitetan diru gehiago gastatzeak.

BARREN *artebaran* **ZUZENDARIA** behar da

ESKATZEN DA

- Kazetaritza mundua ezagutzea eta gustatzea
- Lantaldea bat zuzentzeko gaitasuna
- Euskara maila altua (ahoz eta idatziz)
- Gida-baimena eta autoa

ESKAITZEN DA

- 8 orduko lan-kontratua (urtebeterako/ 4 urtera luzatzeko aukerarekin)

Izena emateko azken eguna:
OTSAILAREN 25a (ostirala)

BARREN
st ri

Nafarroa enparantla, 2
Tel, 943 74 41 12
Faxa: 943 74 37 04
E- posta: harren@topagunea.com

Curriculum-ak eta informazio gehiago:




Elgolharko Izarra K. E,
Ubitarte 4, behea
Tel. 943 74 1G 26

Txiki BARREN

LHko eta DBHko IKASLEEKIN EGONDAKO 60. GEHIGARRIA




Santa eskearen ohitura zaharra gorde nahian Mendatoroko San Jose ikastetxeko ikasle guztiak, otsailaren 4an, arratsaldean, Santa Ageda bezpera zela-eta, ikastetxetik herriko emparantzara buelta egim zuten. Ibilidea soinu eta panderojoleen doinuek alaitu zuten eta herriko emparantzara heldu zirenean gazteok Santa Agedari koplak eskaini zizkioten. Ohitura zaharrek oraindik bizirik diraute eta erakutsi nahi izan zuten San Jose ikastetxeko ikasleek.



Txistea

— Ama, amal Limoiak ba al dute lumarik?
— Nola ba? Ez, seme ez!
— Ai ene, orduan kanarioari atera diot zukua!



Lagun Itxarraki

Seme-alaben lagunak gurasoen gustuko ez direnean, sarritan familian arazoak sortzen dira.

Demagun zuen semeak edo alabak bera baino nagusiagoa duten lagun bat daukala, eta honek haurraren izan dezakeen eragina dela-eta kezkatuta zaudetela. Beldur zarete lagun horrek zuen umea gaztediaren arazoetara bideratuko duen, drogetara, alkoholera **eta sexura**, esaterako. Gainera, sinestezina iruditzen zaizue zuen etxeko txikiak, hain ikasle ona eta lotsatia izanik horrelako lagun bat izatea. Baina kasu horietan semeari edo alabari ezer **esatea alperrikakoa da**, gehienetan lagunei buruz gaizki hitz eginez gero haserretu egiten baitira.

Hobe da haurrari bere ezaugarri onak azpimarratzea laguna gutxiestea baino. Izan ere, semeak edo alabak bere lagun horrengan ikusten duena berok ez duen izaera da. Izateko era hori beste lagun batzuegana heltzeko kaltegarria izango zaiola jakinaraziz gero, lagun hori egokia zaion edo ez pentsatzen hasiko da.

Gurasoek, hurrekin dituzten arazoei buruz modu

egokian hitz egiten badute, seme-alabek bere "lagun" horrek esandakoak piskanaka alboratu egingo dituzte eta aitaren edo amaren esanei egingo diete kasu.

Baliteke hurrek lagun egokiak aukeratzea, baina sarritan beraien irizpideak nahasi xamarraz izaten dira bizitzako hainbat etapatan. Lagunen eragina garrantzitsua izaten denez, guraso guztiek lagun 'txarrak' beraien seme-alaben ingurutik aldentu nahi izaten dituzte.

Baina nortzuk dira lagun "txarrak"? Beraien arazoak agresiboki azaltzen dituztenak, helduen esanei aurka egiten dietenak, **eta besteen** sentimenduekiko, batez ere pertsona ahulenekiko errespetu falta erakusten dutenak. Beraz, lagunak aukeratzeko orduan

hurrei lagundu egin behar zaie, eta beraiak ere eskertu egingo dute gurasoen laguntza. Lehenengo gurasoek gogoeta egin beharko dute bere haurrari gerta dakiokenari buruz, eta ondoren, seme edo alabari jakinarazi eta modu egokian laguntza eman, beraiak gerora eskertuko dute.

Iturria:

Mujer de hoy aldiskaria



Zer iritzi daukazu

ei buruz?



nid: 144144 14m4'44-

ARITZ LARRAÑAGA, 7 urte



*G4,0441-€4. 04m12*4.*

JOKIN MUÑOZ, 11 urte



Opariak oso beharrezkoak ditugu poziki egoteko eta ilusioa edukitzeko.

CRISTINA RIOS, 9 urte



**GUIZON
ZULAILA
10 urte**

Galde debalde

1. Gustuko izen bat.
2. Zer izan nahi duzu handitzean?
3. Ba al dakizu janariaren bat prestatzen?
4. Nori egingo zenioke elkarrizketa bat?
5. Urteko egunik politena.
6. Zer eramango zenuke irla desertu batera?
7. Ikusezina bazina?
8. Telebistako saiirik gogokoena?



**ARAITZ
AILEASATE
12 urte**

- 1- Nire izena, Gotzon.
- 2- Pilotaria.
- 3- Tortila besterik ez.
- 4- Nire lagun Jokini.
- 5- Abenduaren 13a, nire urtebetetze eguna.
- 6- Janaria,
- 7- Nire anaiarekin borrokan ibiliko nintzateke.
- 8- "El Precio Justo" lehiaketa.

1. Amaia izena gustatzen zait.
- 2- Medikua,
- 3- Bai, arrautza frijituak ongi ateratzen zaizkit.
- 4- Nire ahizpari.
- 5- Nire aitaren urtebetetze eguna, irailaren 27a.
- 6- Bazkaria.
- 7- Txinara joango nintzateke.
- 8- "El patito feo" saioa.

Zer da *ed-denta* ?

ERROSA ULERRAK 10 URTE



Zaratarik ez dagoenean egoten dena.

ARAITZ AILEASATE 12 URTE



Zeozer lasaia eta polita.

MWEL FREIKE 12 URTE



Elizkizunetan egiten da isiltasuna.

ARAITZ AILEASATE 12 URTE



Ezer esan gabe egotea.

DIA7 C tiut'E



isiltasuna lasaia da.

MILAI21 FGAÑA 5 urte



Zaratarik gabeko egoera bat da isiltasuna.


ERANTZUNAK: 1- Zuhaitz Gurrutxaga, 2- Zein da egin dizuten azken oparia? 4- o hizkia, arrautza eta gizakia.

.1109.1.10 | 1 opm UIDG4JD | SIDS D4O
| sos uoau6 uan n uaw
14oG pueW upau | 06 LIGJEUJOGUG
| 41D 9 JO 90 upaup6 laqainz

aqo6 v ozip6
cipcip!ci pnz —

• uonni n snq oino
luoau36 uaionol;ec
iuoaulo6 UOJDO SID
tuonnoq ox4o 1 —

11131111ZinDUISV




• ap uezindaue !pnJ! UlaZ



„401ZI1Dp DIZIUD1
eJe 11113J0 'uopplzpozijz
niolsn6 olso
uoaxla uaniju OSID!
)11DillOdDZ olasiom Jois
'uopo uanzioa
aisaa 'uo.lal!6a.u3,

amn g

30191/1131 13)11W



„ouaz!.loy !u0!
moBwi 'z!ou uazwa!
UDGSDIO! UllaIDJ9C1
ala uopoz!z nlolsn6
olsy 'unia6a.uo ualop!z
niolo6a.ua anq LOund,

94.111 9

vnian 311111



ofiena niappaG aaz



oaq pauosped ap JoN



iniinusa ziozo losodinoquaa



Sergio Fernandez pasa den urtarrilaren 27an hasi behar zen objezioa egiten Elgoibar-ko Musika bandan. Baina ez zen joan, eta ez dauka joateko asmorik ere. Izan ere, hasieratik Ordezko Zerbitzu Sozialari uko egiteko ideiarekin egin zen objetore. Bera Ordezko Zerbitzu Sozial horien aurka dago lanpostuak kentzen dituelako. 23 urteko gazte honek adierazi digunez, "zerbitzu hori Gaztetxean egiten ari naiz bost urtetan". Sergio, horrelako jarrerara hartu duen elgoibartar bakarra da eta bere kasuarekin egoera hau ezagutarazi nahi du.

SERGIO FERNANDEZ

"Ez dut Ordezko Zerbitzu Soziala beteko, lanpostuak kentzen dituelakon

Zein da orain zure egoera?

- Musika Bandakoek salaketa jartzen badute, epaiketa edukiko dudala uste dut. Ez dakit zer egingo duten. Niri egia esan, berdin zait. Beharbada nahiago dut nere aurka salaketa jartzea, horrela oihartzuna edukiko du. Epaiketan 6 hilabeteko kartzela zigorra jaso dezaket. Niri berdin zait 6 hilabeteko edo 5 urteko kartzela zigorra jasotzea.

— Ondorioak aintzat hartuta egin duzu?

Ideiak oso argi ditut. Zigorra jasotzea gaizki iruditutzen zait, ezin delako kontzientzia bat epaitu. Gainera, nire kontzientzia epaituko dute, ez dudalako uste epaiketara aurkeztuko naizenik. Beharbada, ez didate deitu ere egingo, baina egoera hau azalerazi nahi dut nire kasuarekin jendeak arazo hau dagoela ja-

kiteko. Ondorengoek nire bidea jaffaitzea espero dut. Beren eskubideak aldarrika ditzatela eta ez ditzatela lanpostuak kendu; Ordezko zerbitzua egin nahi badute, Gaztetxera joan daitezela.

—Erabaki hau hartuta egin zinen zu objetore.

- Hasieratik hau egitea pentsatuta neukan. Nire ideiak kontzientzia eragozle batenak dira, baina ez nago lanpostuak kentzearen alde. Objektoreak lanpostuak kentzen ari dira. Nahiago dut lan hori soldata jasoko duen batek egitea. Objektore egin nintzen momentutik banekien ez nuela Ordezko Zerbitzu Soziala egingo. Bost urtetan dihardut antzerako zerbitzua egiten Gaztetxean. Hori, Elgoibarko herriari egin diodan zerbitzu bat da.

—Jarrera hau hartu duen elgoibartar bakarra al zara?

- Nik dakidala objezioari intsumiso naizen bakarra naiz Elgoibarren. Gero, objezioa esaterako, `Pedrusko'n egiten dutenak daude. Izena ematen dute eta objezioa ez egitea bezalakoa da. Udalak objetore horientzat postu horiek sortzea salatu nahi dut. Postuak sortu dira Musika Bandan, Elgoibarko Club Deportiboan etab. eta ez litzateke jendea hor sartu behar. Udalak, bertan lanak egiten norbait jartzekotan, diru truke jarri beharko luke. Niri ez zait ongi iruditzen objetoreek postu horiek onartzea, jendea intsumisioagatik oraindik kartzelan dagoen bitartean.

—Nola dago intsumisioaren mugirrendua gaur egun?

- Intsumisioaren borroka irabazita dago, dagoeneko ez dago soldaduskara joan beharrik. Intsumiso eginez gero, ez da ezer ere gertatzen, orain ez diote jendeari epaiketara joateko deitzen. Nik baditut lagun intsumisioak eta haiei ez diete deitu ere egin. Hamarretik bati edo egiten diote epaiketa, eta horiei lanpostu publikoak betetzea eragozten dien zigorra ezartzen diete.

—Ba al dago orain talde thnilitaristik Elgoibarren?

- Ni nire kasa ari naiz borroka honetan. Elgoibarren ez dago jadanik talde antimilitaristik. Duela urtebete edo desagertu egin zen. Ez zen bileretara jenderik joaten eta zeudenek uztea erabaki zuten. Badi tut lagunak intsumisioaz galdezka etortzen zaizkidanak, baina norbera bere kabuz moldatu behar da, talde antimilitaristik ez baitago.

IZESTEOK ESANA

"Bere erara mundu injustu hau aldatzen saiatzen den mutil jatorra da" JUSTO ARRIOLA, laguna.





KIAistina
Del 01 vno

r'istina el 01-mo elgoibartarrak 35 urte ditu. Duela 8 urte kantabriar batekin ezkondu, eta Santanderre-joan zen bizitzera. Ilea-paindegi bat zeukan Errosario kalean eta pena handia eman zion utzi behatrak, "asko gustatzen zitzaidan nire lana, eta bezeroekin oso tratu ona neukan. Semeak, Jose Ma eta Julian, segituan izan nituen, eta lana albo batera utzi beharra izan nuen. Hala ere, Santanderren ileapaindegi bat irekitzeko asmoa darabilkit buruan bueltaka". Gabonzahar ferian eta San Bartolome-tan huts egin gabe etortzen dela azaldu digu, eta berarekin minutu batzutan hitz egitea nahilcoa da Elgoibarretaz zenbat akordatzen den jabetzeko, "Sallobente bailara eta erreka, Murrueko pastelak, *Jai-alai* eta *Gorostiza* tabernetako kafeak beti ditut go-goan. Bestalde, "Clemencillo Dorado" deitzen diodan emakurte bat Elgoibarrera etortzen riaizen bakoitzean bisitatzen dut, niretzako bigarren atria modukoa baita". Santanderreko jaie-tan semeak baserriarrez jaxten dituela azaldu digu, "semeei beti kontatzen dizkiet Elgoibarko kontuak. Eskolara beste haur batzuekin ernaten ditudanean, euskal kantak abesten ditugu bidean. Behin Olentzero kantatzen ari ginela Elgoibarko ernakurte batekin egin genuen topo eta harriritua geratu zen gure kantua entzutean".

4101IL

niktr BIDATAK

BILBRO EXPgE55

bidaiak agentziak
babestutako atala

Foruen enparantza, 3
Tel: 943 74 39 12

Prudencio
Etxaniz
Tieta
(1899-1958)



- Santa Klara kalean jaio zen 1896ko apirilaren 28an (San Prudentzio Egunean). Zazpi anai-arreba ziren, bera hirugarrena.. Umetan herriko eskolan ibili zen. Gaztaroa lagun artean jolastuz pasa zuen; herriko ibaian igerian eta arrantzan, txori kabiak bilatuz, esku pilotan jokatuz...
- Koskortu zenean, aitak jostun ofizioa irakatsi zion etxean eta familiarekin batera jostun lanak egiten jarraitu zuen. Anai guztiak oso kirolariak ziren, Santa Klara kalean gimnasio bat ere izan zuten.
- Prudentzio beti izan zen gorputz handikoa eta ausarta. Atleta konplettoa izan zen. Borroka grekoenomatarra ere probatu zuen, baita t.xirindularitza ere. Gaur egun, bere anaia gazteenaren omenez egiten da "Juanito Etxaniz rmemoriala". Morkaiko Mendizale Elkarteko fundatzailea izan zen, oso mendizalea zen-eta. 1959an bere oroimenez inauguratu zuten "Sargoate"ko iturria. Elgoibar F.B.C.ko jarraitzailea zen.
- Plaza Handian eta erromerietan dantzan ibiltzen zen koadrilakoekin. Soldaduska egin zuenean ez zuen jostuna zenik esan, igeltseroa zela baizik. Izan ere, ez zeukan soldaduska osoa berriz ere josten pasatzeko gogorik.
- Herrian autoa izan zuen lehenengoetariko familia izan zen berea, eta Prudentziok buelta asko egin zituen Marinarara, Ondarruara eta beste hainbat lekutara, heri ere jostun lana zela-eta. Paraje hauetan oso ezaguna zen eta bezero asko zituen.
- Toletxe baserriko Josefa Maria Arrizabalagarekin ezkondu eta lasterrera alargun geratu zen. Gero, Andikano baserriko Angeles Aranberri pertxentarekin ezkondu zen, eta zazpi seme-alaba izan zituzten; Miren Agurtzane, Miren Arantza, Miren Arrate, Xabier Igone, Miren Itziar, Iosu Mirena eta Sabin Joseba.
- Famili girokoa, legezkoa, jatorra eta sinismenekoa zen. Gizon herriko, ospetsu eta estimatu honek, gogoko zituen kirolak, irakurtzea eta lagunartea. Txantxazalea zen, eta egun on asko pasa zituen lagun artean.
- 1956ko abuztuaren 30ean hil zen, 60 urte zituela.

Juanito Gorostiza

HERRI-GAİN
ERRETEGIA

San Pedro auzoa, 4
☎ 943 74 30 40 ELGOIBAR

1

Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua

tš' 943 20 35 15
'1' ABERIAK 943 20 31 25
Bista Eder,11 (sotanoa)
20600 EIBAR



ste honetako erretratu zaharra **Lorenzo Juaristik** laga digu. Argazkiko gazte koadrita honek Madarixako frontoian atera zuen argazki polit

hau 1948. urtean. Azkoiti eta Elgoibarko gazteak elkartu eta Madarixako jatetxean bazkaria egin zuten. Lorenzok esan digunez, "ez naiz bazkaria egiteko arrazoia zein izan zan akordatzen, baina Madarixa eta Azkarate inguruko basenixetako gaztiak elkartu ginan eta ederto pasau gendun soinu eta guzti". Goiko ilaran ezkerretik hasita: **Lorenzo**

Juaristi, Julian Agirregomezkorta, ezezaguna, Imanol Arriola, Juan Soraluze, Inazio Astigarraga, Tomas Zabaleta, Lucio Sasiain (t.), ezezaguna, ezezaguna, Javier Etxaniz (19. Felix Alonso eta Ramon osoro (t).

Erdiko ilaran ezkerretik hasita: **Juan Bollar (t), ezezaguna, Justo Arriola, ezezaguna, Tomas Etxeberria, ezezaguna, ezezaguna, Jose Berasaluze, Eulogio Arizmendi (t), eta ezezaguna.**



Sionujoleak: **Valentin Astigarraga eta Pedro Sodupe (Gelatxo).**

Beheko ilaran, ezkerretik hasita: **Felix Zubizarreta, ezezaguna, ezezaguna eta ezezaguna.**




IV. URTEURRENA

1996ko otsailaren 11n, 21 urte zituela hil zen **GAIZKA GALDOS ARAKISTAIN**en oroimenez **W URTEURRENEKO MEZA** izango da Garagartzako Parrokian igandean, hilak 13, eguerdiko 12:00etan. Joaten zaretanoi eskerrak alde zurretik.



ES.KERTZA

2000ko urtarrilaren 27an, 68 urte zituela hil zen **İLIA.NA AZPIAZU AZPIAZU**ren sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



)114 "Distantzia luzeko lasterketak gustatan jataz, erresistenthakoak"



Lara Urain

- **Adina: 11 urte.**
- **Gogoko beste kirolik?** Oso kirolzalea naiz. Igerian, futboleak, saskibaloian eta tenisaren ere aritzen naiz.
- **Zein beste kirol duzu gogoko atletismoaren barruan?** -Pelota jaurtiketa eta altuera jauzia asko gustatzen jataz,
- **Zer izan nahl duzu handitan?** Kazetaria izatia gustauko jatan.
- **Gustoko pelikula bat?** Tarzan eta Asterix eta Obelix.

-Ozta-ozta izan bazen ere, Mintxetako Eskolarteko krosa irabazi zenuen domekan. -Bai, segundu eskas baten aldia atera nion bigarrenari, gure mailan orain arteko lasterketa guztixak irabazi ditxun oñatiar bati. Domekan ere bera zan faborito nagusixa, eta berak irabaziko zabala uste naban, baina lasterketia Elgoibarren zanez, hasieratik buruan jarri, eta nakan dana ematera irten nitzan. Denbora guztixan lehenengo postuan jun eta gero, bukaera aldera oñatiarra asko hurrerau jatan. Esprinian ez naiz oso ondo moldatzen eta oso urduri jarri nintzan. Pena ematen dau karrera guztixan lehena jutiak eta azkenengo esprinian galtziak, baina ez zan holakorik gertau.

-Irabazi duzun lehen lasterketa izan al da? -Krosean bai. Pistan, berriz, irabazi izan ditxut lasterketa batzuk Mintxetan. Hala ere, 10 edo 20 lehentan bukatzen det normalian.

-Nolako lasterketak gustatzen zaizkizu? -Esprinean txarra naizenez, distantzia luzeko lasterketak gustatzen jataz, erresistentziakuak. Aurten korritxu doten lasterketa motzenak 1.100 metro zitxun.

-Taktika berezirik erabiltzen al duzu? -Erritmo bat markatzen dot hasieran eta hori jarraitxu. Erritmo aldaketak eixia ez jata gustatzen. Ondo nauanian erritmo azkarrian hasi eta bukatzen

dot, edo bestela lasai hasi eta gutxinaka erritmua igoz juten naiz. Entrenatzailiak ere zirkuitoko leku desberdinetan egoten dia eta animuak ematiaz aparte, eurek esaten digue erritmua bizitxu edo moteldu bihar dogun. Batzutan, guk baino korrika gehixo eitxen dabela uste dot, alde guztixetara ailegatzen dia-eta.

-Zenbatean behin entrenatzen duzue? Astian hiru bider. Bakarrik entrenau bihar izanez gero, gogorraua izango zan, baina Mintxeta Atletismo Taldian asko gera eta ez dou korrika bakarrik eitxen. Entrenatzailiek jolasak eta beste kirol batzuk tartekatzen ditxuzte entrenamentuak dibertigarri-xauak izateko.

-Zer nahiago duzu pista ala krosa? -Krosa, pistan korrika eixia baino dibertigarri-xaua da, aldapak gora eta behera, bedarra, harririk... zailtasun gehixao dao eta hori neri ondo juten jata.

-Ikasketetan korrika bezain azkarra al zara? -Irakasgaien arabera, batzuetan ongi moldatzen naiz eta beste batzutan ez hain ondo.

-Handitan Mugerza Krosean parte hartzea gustatuko litzaizuke? -Bai, ilusio handixa eingo liake. Lehen, nere aitxak edo lehengusuak ikusten zabelako ikusten naban, baina atletismuan nabilenetik arreta gehixokin jarraitzen dot.

● Bkiloturisten irteera otsailaren 13an

Elgoibarko Lagun Taldeak antolatuta, datorren domekan, hilaren 13an, izango da 6. zikloturista irteera. Goizeko 10:00etan Txankakua zubitik abiatu, eta honako hau izango da egingo duten itzulia: Eibar, Ermua, Trabakua, Markina, Ondarroat, Mutriku, Deba eta Elgoibar. Guztira 61 km. dira. Nahi duen edonork har dezake parte.

— ESKOLARTEK @ KIROLAK —

AGENDA Otsailak 12, larunbata

FUTBOL 7, Mintxetan

■ Alebinak III

Ezker zelai ertian

9:45 Mendaro A- Ikastola B (Mut.)

10:30 Txinpartak - Pilar A (Mut.)

11:15 Lagunak- Arno (Mut.)

12:00 Ikastola C - Ikastola B (Nesk.)

12:45 Ikastola A Pilar A (Nesk.)

Eskuin zelai ertian

9:00 Herri Eskola B - Ikastola C (Mul.)

9:45 Hamaikak Txiki Goiko Plaza (Mul.)

10:30 Pilar B - Jotake (Mut.)

11:15 Txuri Urdin - Umoro Ona (Nesk.)

12:00 Pilar B- Tarfilak (Nesk.)

SASKIBALOA, Ikastolan

111 infantil mulilak •

9:00 Pilar A- Ikastola A

9:45 Amo - Fleie

■ infantil neskek ■

10:30 Hamaikak Naskak - Pilar A

11:15 Pilar B- Ikastola A

12:00 Ikastola C - Ikastola B

ESKUBALOA, Kiroldegian

■ Benjamin mutilak ■

10:00 Herri Eskola A Mendaro A

11:00 [kastola A - Pilar A

12:00 Ikastola - Pilar B

E Benjamin neskek •

9:30 Herri Eskola B- Ikastola B

10:30 Mendaro B- Pilar A

11:30 Ikastola A- Ikastola B

Egoilz Mora, Euladiko judo txapelkun junior

Martxoaren 4an Espainiako Judo Txapelketan hartuko du parte Madrilen

2000ko otsailaren 25ean, larunbatean, Ibai Kirol Elkarteko ikasle elgoibartar honek Euskadiko judo txapelketan parte hartu zuen, junior kategorian hain zuzen. Txapelketa Leioako Askartza Klaret kirol instalazioetan jokatu zen. Egoitzek (junior mailako lehen urtean dago) 90 kg-tik beherako pisuan parte hartu zuen eta ez zuen inolako arazorik izan erraz irabazteko, 10 segundo baino lehen irabazi baitzituen konbate guztiak. Arabako eta Bizkaiko txapelkunen kontra eta Gipuzkoako selekzioako kide baten kontra borrokatu zuen.



90Kg.tik beherako pisuan parte hartu zuen parte Egoitzek, eta 10 segundo baino lehen irabazi zituen konbate guztiak.

Txapel honekin 6 dira Euskadiko txapelketetan lortu dituen Kapelak. Eta orain Espainiako txapelketa prestatu beharko du ondo, txapelketa hori martxoaren 4an eta 5ean jokatu baita Madrilen. Espainiako txapelketako finalerako sailkatzeko, berez iparraldeko sektorean parte hartu beharko zukeen,

nak irabazi zituztenak, Ana Estevez, Unai Fernandez, Aitor Pascual eta Josu Tellabide izan ziren. Brontzezkoa, berriz, Ekhi Unanuek irabazi zuen. Infantil kategoriari dagokionez, Zuriñe Polo eta Maria Idiakezek urrezko dominak lortu zituzten eta Amaia Zabaletak zilarrezkoa.

baina iaz zilarrezko domina lortu zuenez, automatikoki sailkatuta dago aurtengo finalerako. Ea, bada, aurten ere podiumera igotzeko modua izaten duen.

Eskolarteko Judo Txapelketa

Bestalde, pasa den urtarrilaren 30ean jokatu zen Eskolarteko Judo Txapelketaren lehen jardunaldia Arrasaten. Elgoibarko ikastetxeetako eta Ibai Kirol Elkarteko hainbat judokek hartu zuten parte alebin eta infantil kategorietan. Elgoibartarrek maila altua erakutsi zuten eta alebin kategorian 5 urrezko domina eta brontzezko bat eskuratu zituzten. Urrezko domi-

Mintxeta Atletismo Taldeko korrikariek emaliza bikainak lortu dituzte Eskolarteko Kros Txapelketan



Lara Urain izan zen podiumaren gorenera igo zen elgoibartar bakarra.

Mintxeta Atletismo Taldeko korrikariek 3 domina bazi zituzten pasa den domekan, hilaren 6an, Mintxetan jokatu zen Eskolarteko Kros Txapelketan. Lara Urainek alebin kategoriako lasterketa irabazi zuen. Lasterketa honek, emozioz beteriko amaiera izan zuen, Larak segundu bateko aldea besterik ez baitzion atera bigarren sailkatuari, Maite Ugarte oñatiarrari, alegia. 2.200 metroko ibilbidea egiteko 8'47" behar izan zituen Larak. Bestalde, Mintxeta taldeko 13 korrikalmik hartu zuten parte alebin kategorian. Horietatik, helmugara iristen lehena Aitor Arrillaga izan zen (8' 34"). Sailkapen orokorrean bigarren postua eskuratu zuen. Lasterketa berean Unai Cabok 4. egin zuen. Azkenik, Dorleta Aranbarri 3. postuan (9' 37") sailkatu zen infantil kategorian. Nerea Zubiaurre, berriz, 4. postuan sailkatu zen. Mutiletan infantil kategorian Antton Alberdi izan zen lehen elgoibartarra, 8. postuan hain zuzen ere.

EMAITZAK

Futbola

Haundi 2- Sestao River 0 (3. maila)
Elgoibar 3- Union Txiki 2 (Oho. inl.)
Elgoibar 1 - Iliintza 1 (1. erreg.)
Balasuna 2- Elgoibar 1 (Juh. E.L.)
Zumaia 4- Pedrusko 0 (1. erreg.)
Tolosa 0 - Elgoibar 1 (Kad.)

Eskubaloia

Pagoaga Elg. 13 - C.B. Ermua 8 (Kad. nes.)
Gaur Elg. 32 - Arrasate E.B. 16 (Kad. mut.)
Teenomeca Elg. 33 - AloriaMenei 15 (Kad. Mut.)
Unceta Elg. 16 - C.B. Ermua 26 (Jub. nes.)
EgiaJog.21 - Pneumax Elg. 30 (Jub. mut.)
I.M.S. Elg. 20 - B.M. Zuazo 15 (Senior nes.)
Donibane 23 - I.M.H. Elg. 23 (Senior mut.)

Saskibaloia

Elgoibarko S.T. 29 - Datac Computer 31

Warraga Kafeak 3. saria

HAUNDIko jokalarierregularrena 99/00

JOKALARIA PUNTUAK

1- Aranberri	29
2- Zulaika	28
3- Castro	25
4- Polo	21
5- Alberdi	20
6- Loren	20
7- Castillo	17
8- Bravo	16
9- Ibarluzea	16
10- Diaz	15
11- I. Leonardo	12
12- Bague	11
13- Guarrotxena	6
14- Ruiz	5
15- Manolo Ramos	4
18- Alkorta	4
17- Txasio	4
18- Garo	4
19- Edu	4
20- Fernandez	2
21- Mikel	2

11-41Taa

Futbola, Mintxetan

Larunbala, 19
17:45 Elgoibar - Cruces (Jub. E.L.)
Igandea, 20
12:00 Elgoibar - Santo Tomas Lizeoa (2. kad.)
16:38 Elgoibar - Ostadar (Neskak)

Eskubaloia, Kiroldegian

Larunbala, 12
16:00 Gaur Elg. - ITB "B" (Kad. mut.)
17:39 I.M.S. - Ermua (Sentor nes.)
19:00 I.M.H. - Ormaiztegi (Sentor mut.)

Areto Futbola,

Igandea, 13
Eskualdeko 1. Txapelketa
10:00 S.A - Drink Team
11:00 Deportes Justo - Berriz
12:00 La Tarantela - Open Club
13:00 Doktor Pollo - Elur F.S.

PERLA

John
Skinherk-



Giza
sentimenduen
aldarrikapena

John Steinbeck Literatura Nobel saridunak jende xehearen istorioak kontatu zituen bere liburuetan. Ezagunak dira bere zenbait eleberrri: "Gizaki eta arratoiei buruzkoa" edo "Haserrearen mahats aleak". Guztien artean bada idazle estatu batuetarra ezagun egin duen liburu bat, 'Perla' izenburuduna, hain zuzen ere, uk, gainera, euskaraz irakur dezakegu Ruper Ordorikaren itzulpenari esker.

Bertan arrantzale familia baten gora-beherak kontatzen dira. Kino arrantzalea, Juana emaztearekin eta Coyotito semetxoarekin bizi da. Egun batean, arrantzan ari direnean, Munduko Perla aurkituko dute. Perla honiek pobretasunetik ateratzeko aukera emango die. Baina momentu horretatik aurrera egonezina nagusituko da beraien bizimoduan.

Istorio hau berez Mexikori gertatzen da, baina egileak adierazi zuenez parabola bat da. "Perla"-n Steinbeck-ek gizakiaren sentimendu eta baloreen alde egiten du. Literaturzaleak ezinbestean irakurri beharreko liburua da hau.

Jon Eugi

IHerrr eshalturn Inaugurate dwrle EtagfinEgen
Inurube Italdearen 75. urieurreneas

Elgoibarko Izarrako koruek, berriz, 80 baserri inguru koplatu zituzten



Urtero bezala, Santa Ageda egunaren aitzakian, Santa eskean ibiltzeko ohitura berritu zen joan zen astean. Bai baserrietan eta baita kalean ere, taldeak kantuan eta eskean ibili ziren. Otsailaren 4an, seigarren urtez, Elgoibarko Izarrak antolatutako Santa eskea egin zen baserriz baserri. Biharamonean,

berriz, otsailaren 5ean, herriko kaleetan beste behin eutsi zitzaion ohitura honi. Aurten gainera kaleko Santa Eskearen 75. urteurrena bete da eta hori dela-eta 'Herri' eskulturaren inaugurazioa egin zen Bolatokiko parkean.

Joan zen otsailaren 5eko Santa Ageda eskea berezia izan zen. Goizean herriko kaleetan ibili ziren Etxegina taldeko koruek. Ondoren, eguerdiko 13:00etan eguneko ekitaldi garrantzitsuena izan zen. Ordu horretan, jendez gainezka zegoen Bolatokiko parkean eskuItura bat bedeinkatu eta inauguratu zen, Santa eskeko jendearen oroimenez. Eskultura "Herri" izenekoa da eta bederatzigiza balore adierazten ditu: apaltasuna, iraunkortasuna, lagunkidetasuna, maitasuna, jasankortasuna, buntjabetasuna, bazkaletasuna, bata.suna eta askatasuna.

Ekitaldi berean oroigarriak banatu zitzaizkien Santa eskearen sortzaileen senideei:


German Uriguen "Etxe,gitia", Santi Kortabena eta Ramon Uriguen "Etxegiria"renei. Horiez gain, baita beste hamar laguntziniere ere. Ondoren, koplariak Errosario kaleko Amabirjinaren aurrean "Salbea" kantatu zuten eta bukatzean bazkaltzera joan ziren.

Santa eskea baserriz baserri

Bestalde, Santa Ageda bezperan, otsailaren 4ean, Elgoibarko Izarrak antolatutako Santa eskea egin zen baserrietan. Arratsaldeko 14:30ean hasi ziren kantuan 20 lagun inguru bi taldetan banatuta. Talde batek San Pedroko eta San Migeleko baserriak koplatu zituen. Beste bat, aldiz, Sallobente, Urruzuno, Azkarate eta San Migeleko baserri batzuetan ibili zen. Iluntzeko 21:00ak aldera arte jardun zuten kantuan. Ondoren, San Migeleko soziedadean izandako afarian indan'ak berreskuratu eta gero, 25 lagunek berriro ekin zioten baserriak koplatzeari, goizaldeko 4:30ak aldera arte. Guztira, 80 baserri inguru koplatu zituzten egun osoan Elgoibarko Izarrak antolatutako Santa eskean ibilitakoek.



Bi taldetan banatuta, Elgoibarko Izarrako 22 lagun inguru ibili ziren baserriz baserri kantuan.



Literaturzaletasunak batutako

drre 01

Ez da baraien lanak saritzen dituzten lehen aldia. Euskaltzaindiko Azkue sariak jaso dituzte orain dela gutxi, baina aurrez Elgoibarko Izarraren Idatz Lehiaketetan eta Azkoitian ere izan dira irabazle. Uxue eta Antton Alberdi Estibaritz dira, anai-arrebak, eta familiak ezetik literaturzaletasunak ere batzen ditu. Ikasleak dira biak eta tarteren bat dutenean kirolerako, musikaralco zein idazteko aprobetxatzen dute. Ongi aprobetxatu gainera, izan ere, beraien lanak beste batzuen artean nabarmendu dituzte.

Antton Alberdi Estibaritz

- Beti lehiaketetarako idazten al duzu?

Gehienetan eskolan agintzen digutelako idazten dut, baina badauzkat nire kontura idatzitako lan batzuk ere. *Azkie* Sarirako idazlana, esaterako, errekreo baten idatzi nuen.

- Nolako gaiak erabiltzen dituzu? -Prosarako abenturazko gaiak ditut gustuko. Bertsoetarako, herriz, edozein.

- Zergatik idazten duzu? - Idaztea denborapasa bat da niretzat. Etxean lanik ez dudanean idazten dut.

- Hurrengo lana noizko? - Euskarako irakasleak datorren hilabeterako lan bat egiteko agindu digu, baina ez daukat lana inon aurkezteko asmorik.

- Zein da irakurri duzun azken liburua? - Orain "Hany Poter y la piedra filosofal" irakurtzen ari naiz, gustuko dut irakurtzea eta liburuak euskaraz zein gaztelerez izan berdin zait.

- Konpentsazio ekonomikoa ere badute lehiaketek. Nik irabazitako guztiak bankura joan dira. Oraingoz gorde egingo dut, eta noizbait izango dut ateratzeko beharra.

- Etorkizunerako zein asmo daukazu? Zientzia arlotik joatea gustatuko litzaidake, astrofisika-edo ikastea. Inoiz ipuinen bat edo beste idatziko dut baina literaturatik bizitzerik ez dut uste.

- Komunikabideetan ere agertu zarete? - Niretzat oso arraroa izan da dena. 'Azkue' sarietan mahai batean jarri gintuzten denak eta argazkilari pila bat agertu ziren beraien kamarekin. Elkarriketak ere egin zizkiguten, eta arraro sentitu nintzen.



Uxue Alberdi Estibaritz

- Noiz idazten duzu?

Gehienetan triste nagoean idazten dut. Ondoren gorde egiten ditut eta lehiaketaren bat dagoela jakinez gero, bidali egiten ditut.

- Maitasunezkoak izan ziren 'Azkue Saria' irabazi zuten bertsoak. Bai, maitasunaren alde tristea ikutu zuten. Gai tristeak nahiago ditut, aukera gehiago ernaten dute eta alaiak ez zaizkit ongi ateratzen. Normalean triste edo aspertuta nagoean idazten dut.

- Beti bertsoak idazten al dituzu? -Nire kontura iclaz ten dudanean beti bertsoak izaten dira. Idazlanak, eskolan agintzen dizkigutenean

baino ez ditut egiten.

- Disziplinarik badaukazu idazterako orduan? - Normalean lanak hasi gabe ditudanean gehiago kostatzen zait idazten jartzea, zerbait eginda edukiz gero amaitu nahi izaten dut. Bertsoalc idazteko teknika berezirik ez daukat, baina gehienetan ideak idazten ditut, bukaera pentsatu, errimak atera eta gero egiten dut bertsoa bera.

- Zein izan da entzun duzun azken bertso saioa? Zuzenean, Gipuzkoako Herri Arteko Txapelketaren finala, Bestela, telebistan igandero ikusten dut "Hitzetik Hortzera" bertso prognuna. Gainera, gustuko bertsoak buruz ikasten ditut eta telebistatik ere grabatzen ditut bertsoak.

Pentsatu al duzu inoiz literaturatik bizitzea? - Oso ona ez bazara zaila da horretatik bizitzea. Hala ere, etorkizunean letretatik joango naizela uste dut. Zientzia arloa ez zait gustatzen eta agian irtenbide gehiago badauzka ere, gustuko ez dudanean aritzea ez nuke nahi.

13 igandea

10:00 ZIKLOTURISTEN
IRTEERA
Txankakua zubitik
Antolatzailea:
Elgoibarko Lagun Taldea

12:30 UDAL MUSIKA
BANDAREN
KONTZERTUA
Herriko Antzokian

16:30 ZINEA
"Tarzan"

19:30-22:15 ZINEA
"El fin de los dias"

17 osteguna

19:00 HITZALDIA
Gaia: Osasuna eta
elikadura. Gehiegi jatearen
arazoak
Hizlaria:
Marta Agirre doktorea
Kultur Etxean
Antolatzailea: Haizea E.T.

21:30-22:15 ZINEA
"Ana y el rey"

11 ostirala

20:00 KONTZENTRAZIO
IXILA
`Euskal Presoak Euskal
Heffira'
Plaza Handian
Antolatzailea:
`BATERA' plataforma

22:15 ZINEA
"El fin de los dias"

14 astelehena

19:00 CASCANUECES
DENDAREN
ERAKUSKETAREN
INAUGURAZIOA
Kultur Etxean
Otsailaren 27ra arte

20:00 GUTUN
SOZIALAREN ALDEKO
ENKARTELADA
Plaza Handian
Antolatzailea: Gutun
Sozialaren Komisioa

22:15 ZINEA
"El fin e los dias"

18 ostirala

18:30 ODOL
ATERALDIA
Migel Urruzuno San

22:15 ZINEA
"Ana y el rey"

12 larunbata

19:30-22:15 ZINEA
"El fin de los dias"

III ■ ■ 11 111 111 • RI ■ • EI • Z ER ■

11 NE A



Zuzendaria: Peter Hyams.
Antzezleak: Arnold Sellwarzenegger, Gabriel Byrne, Robin Tunney.

"Ellin de los dias"

Bigarren milurtekoa amaitzeko egun batzuk besterik falta ez direnean, deadruak giza itxura hartu eta infernutik ateratzea erabaki du. Oraingoan emazte bila itzuli da lurrera, seme bat izatea nahi baitu. Deabruaren sementa antikristoa izango tzateke eta bere domeinupean, mundua gaizkiaren erreinua. Mundua deabruaren hatzapparretatik salba dezakeen bakarra polizia ohi bat da (Schwarzenegger).

■ 111 1111 R ■ 111 IIII II IR RREI • 11 IR

• **Udal Musika Bandaren kontzertua**

Igandean, hilaren 13an, Udal Musika Bandak kontzertua eskainiko du Herriko Antzokian. Jose Antonio Osororen zuzendaritzapean eguerdiko 12:30ean hasiko da kontzertua. Honako pieza hauek joko dituzte: Bosque de Bolonia (M. Jimenez), Bellacross the Meadows (Ketelby), La venta de los gatos (J. Serrano), Highlights from 'cheese' (Anderson), Viva el rumbo (C. Zabala).



• **'ARIGERK' proiektuan izena emateko epea zabalik dago**

'ARIGERA' proiektuak antolatuko dituen jardueretan parte hartzeko izena emateko epea zabalik dago. Elgoibarko Izarra, AEK Euskaltegia, Udal Enskaltegia eta Udalaren artean Elgoibarren euskalduntze-alfabetatzea suspertzeko asmoz sortu da 'ARIGERA' proiektua. Proiektuko teknikariak azaldu digunez, urtean zehar irteerak, ikastaroak: hitzaldiak,... antolatzeko asmoa dute euskaltegietatik kanpo.

Hori dela-eta, 'ARIGERAT'oen asmoa, proiektuan parte hartzeko interesa duen jendearen zerrenda bat egitea da; Euskara ikasle, ikasle izandako, ikasi edota praktikatu nahi dutenena, hain zuzen ere.

Beraz, proiektuan parte hartzeko edo informazio gehiago jasotzeko, jo Elgoibarko Izarrak Ubitarte 4-behean duen bulegora edo deitu 943 74 16 26 telefonora. Nahiago izanez gero Udal Euskara Zerbitzuan, AEK eta Udal Euskaltegietan ere emango dizuete informazioa. Bestalde, 'ARIGERA'n izena ematen duenak ez du jarduera guztietan parte hartu beharko nahi duenetan baizik.



• **Otsailaren 18an odol ateraldia izango da**

Elgoibarko Odol Emaileen Elkarteak aditzera eman nahi du, datorren otsailaren 18, odol ateraldia izango dela Pedro Migel Urruzuno kaleko 8an duen egoitzan. Ordutegia ohikoa da: arratsaldeko 18:30etik 20:30era bitartean. Deialdia herritar guztientzat da, bereziki 18 urtetik gorako gazteentzat.

T X A N D A

FARMAZIAK

- | | Egunez | Gauzez |
|----|------------|----------------------------------|
| 12 | Yudego | Yudego |
| 13 | Yudego | Yudego |
| 14 | Zabaleta | Zabaleta |
| 15 | Etxeberria | Etxeberria
(Erosario kalean) |
| 16 | Escala | Escala |
| 17 | Bidasolo | Bidasolo |
| 18 | Etxeberria | Etxeberria
(Santa Ana kalean) |

*(eguerdiko 2ak arte)

ESCALA: Rekalde, 1
Soraluze. Tel: 943 75 16 38
J. IGNACIO FERNANDEZ
Herriko enparantza 4,
Garagarza. Tel: 943 75 61 42
ZABALETA: Kalebarren, 9
Sorafuze. Tel: 943 75 13 84

OKINDEGIA

13 igantlea Itlarraga

ONGARRI
zine kluba



Zuzendaria: Victor Gabiria
Antzezleak: Leidy Tabares,
Marta Correa, Mileider Gil.

Vendedera de rosas"

Medellingo kaieak, bertako haurrak eta bertan bizirauteko egunero gogor bonokatu beharra... Horra hor, Victor Gaviriaren proposamena. Narrazioa bizia da, eta indar bisual handikoa. Sentimentalismoak eta irizpide etikoak alde batera lagata, Victor Gaviriak Monica arrosa-saltzailearen eta kalean bizi diren umeen bizimodu berezia pantalairatzen du. Hauek 'familia handi' bat osatzen dute eta egunero bonokatu behar dute bizirauteko.

Lana

• ESKAINTZA •

- Neska bat behar da bi ume zaintzeko eta etxeko lanak egiteko.
943 74 00 35 (Goizeko 10:00ak eta 12:00ak bitartean deitu. Lourdes)
- Pertsoua bat behar da Elgoibarren gaixo bat zaintzeko.
ir 943 47 02 22/943 74 02 24 (20:00etatik aurrera deitu)

• ESKAEFL& •

- Umeak edo nagusiak zaintzeko neska eskaintzen da. Esperientziarekin. a 943 74 06 12
- Esperientziadun neska eskaintzen da gaixoak eta pertsona nagusiak zaintzeko, 14 630 75 44 47 (Mertxe)
- Neska esperientziaduna eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Egunean 2 orci.a. 609 52 68 69
- Umeak zaintzeko neska eskaintzen da. Esperientziarekin. mr- 943 74 34 68 (Silvia)
- Neska eskaintzen da arratsaldean egiteko. zr 943 74 18 72 (21:00etatik aurrera deitu. Amagoia)
- Neska eskaintzen da orduka plantxa egitekoar 667 34 86 07 (Sandra)

Bestelakoak

*Gaztetxerako aulkiak eta mahaiak behar dira. Soberan izan eta ematea nahi baldin baduzue deitu. Jasotzera pasako gara. -n 943 74 35 72

- Erritxindi auzoan perikito bat aurkitu dut. s 943 74 05 35
- Ikasle pisua osatzeko jendea behar da. 2 logela libre.
tr 943 62 53 77 (Fernando)
- Graduatutako betaurrekoak aurkitu ditugu Pedro Muguruza etorbideamir 943 74 13 43
- Animalia ile luzedun alfonbra, edota larruak botatzeko badituzu, deitu 943 74 32 06 telefonora. Jasotzera joartgo gara.
- *Bi neskak errealeko hufa topatu dute merkatu plazako eskilaretan eta Udaltz.ingoan dago.

Salerosketak

- Nissan Cabstar E 110.35.a salgai. Bolketea eta grua (500 kg). 5 hilabete. 1400 Km. SS-BG.
tr 943 60 33 63
- Cooecker arrazako txakur-kumea salgai, tr 696 05 73 46
- Ford Fiesta berria saltzen da. SS-BG. 6 hilabete 639 39 08 08.
- *Ford Scort 1.6. I. salgai.
Tr 943 74 33 51 / 943 19 25 71 (Rosa Mari)
- Peugeot 205 autorako Pirelli gurpilak salgai 943 74 43 16 (Gauze deitu)
- *Peugeot etxeko "Zenith" markako motorra salgai. Erabili gabe.
Tr 943 74 30 52 (eguerdi eta iluntzetan deitu)
- Moncayo Costa Aztill karabana salgai. 3 pertsonarentzat.
Tr 656 77 28 80
- Ofizianako materiala salgai: 2 mahai, 2 aulki, 3 artxihadore, fotokopiagailua eta faxa.
tr 656 77 28 80
- Opel Astra SS-AS salgai. 650.000 pta. ir 943 74 09 44

Etxebizitzak

- Pisu txikia edo buhardila alokatuko nuke. Ir 617 68 53 99
- Pisua salgai Eibarren.
e 609 95 16 41
- +Pisna salgai Santa Ana kalean. 3 gela ditu. 943 74 41 35
- Etxebizitza alokatzen da Deban ekainera bitartean. v 943 74 13 39 (Ane)
- Etxea saltzen dut Altzolan. Prezio ona. 943 74 37 41
- Pisua saltzen da Urasandin altzariarekin. 85m² ditu. ir 943 74 39 91
- Lokala saltzen da Altzolan. 75m². Tr 943 74 39 91
- Etxea alokatuko nuke Elgoibarren. 3 gela edo 2 logela eta egongela er 696 47 16 95 (Manu)
- Etxebizitza (garajejanbarra) salgai Basarte Kalean. Eraikitzeaz. Lehen eskukoair 943 86 52 17/ 943 74 20 84

Oharra

Merkatu txikirako oharrak asteazken eguerdia baino lehenago ekarri behar direla gogorarazten dizuegu.

Agurrak

- Frida. Egun zoriontsu bat igaro dezazula Leongo lagunekin. Zorionak gurasoen eta anaiaren partez. Muxu handi bat.
- Zorionak Ainhoa Uribeetxeberriari, bihar, otsailak 12, 13 urte beteko dituelako. Ikastolako DBH lekoen eta bereziki bere mutilen partez. Aupa ver!
- Zorionak Sergio "el maneo", hilaren 14an, 12 urte beteko dituzulako, Zorte on neskekin, "guatepeton"! Reketezorionak baita ere zure nobiaren partez. Zure igeltsua super-hiper harrigarria da. Non geratuko gara?
- *Zorionak Aitor Arrillagari, urtarrilaren 30ean, urteak bete zituelako. Badakigu oso berandua dela zorionak esateko. Zure... eta lagun baten partez. Zorionak "Arritxiki".

- Superzorionak Naiarari, hilaren 17an, 12 urte beteko dituelako. Zure atzetik dabilen mutil baten partez. Zorionak baita ere lagun batzuen partez, "mentirosilla"! Sandiak dira eta ez sandaliak, hala ez zara gogoratzen? Potolo hegazkin magikoaren partez. Nirekin etorriko al zinake hegazkinean?
- Zorionak Ainhoari eta Xabierri, otsailaren 12an eta 15ean urteak beteko dituztelako. Familiaren partez.
- Zorionak Carlos Martinez, hilaren 12an, urteak beteko dituelako. Ivanen Jorgeren eta Sergioren partez, Zorionak aita!
- *Zorionak Jose Coronadori, hilaren 14an, urteak beteko dituelako. Familiaren eta bereziki iloba Gorkaren partez.
- Zorionak Amaia Fernandez, gaur, hilak 11, 15 urte bete dituelako. Ikastolako DB1-1 3ko ikasle guztien partez.


- Zorionak Manolo Cidi, ernaztearen eta seme-alaben partez.

* Zorionak Sergio Martinez, hilaren 14an, urteak beteko dituelako. Bere anaia Gorkaren eta arreha Elviren partez.



- Zorionak Pileri, urtarrilaren 27an, urteak bete zituelako. Familiaren partez.

*Zorionak Yolanda Coronadori, hilaren 17an, urteak beteko dituelako. Familiaren eta bereziki Gorkaren partez.



- Zorionak Saray Rodriguez, otsailaren 12an, 6 urte beteko dituelako. Familiaren eta bereziki ahizpa Eiderren eta lehengusulehengusina Arkaitzen eta Eneritzen partez.



- *Zorionak Iker Ortnaetxe, hilaren 7an, 5 urte bete zituelako. Zorionak baita ere Iratiri, hilaren 15ean, urtebete egingo dituelako. Familiaren eta bereziki bere amonaren partez.

GREMIOEN GIDA

Gremioen gida honetan azaldu dituzte baduzu, deitu ! ☎ 943 74 37 04

ARROZTEGIAK

BIENA

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 31 16

GARCIA

Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

LODOSO

Leihoak
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 34 90

SORALUZE

Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
☎ 943 74 36 34

ULAZIA

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47

ZABALA

Etxeko erreformak-enbalajeak
Deba kalea, 16
☎ 943 74 03 96

5©LA ENDUAK

GLAS CONTROL S.L.

Inpermeabilizazioak
Olaso 27, 47. pabiloia
☎ 943 74 30 94

ITURGINTZA

ANGEL wiim

Santa Ana, 5
☎ 943 74 17 61
☎ 689 04 92 06

JAV1

Erretxindi, 1
☎ 608 77 29 32

JUAN CARLOS S.L.

Urasandi, 59-61
☎ 943 74 34 87

ONG1

Urasandi, 8
☎ 943 74 10 82

PAGOAGA

San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

TELLABIDE

Azpilgoeta, 19 IVIENDARO
☎ 943 75 50 62
☎ 607 75 50 62

ZALDUA

Urasandi, 26
☎ 943 74 05 30

ZUBIZARRETA

Ubitarte, 5
☎ 943 74 07 89
☎ 608 14 30 40

PR©

JESUS GABILONDO

Ubitarte, 4-5 esk.
☎ 943 74 45 99

PINTURAK

IPINTZA

Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40
☎ 607 74 04 40

IZMETML:\

ARAMAR

Morkaiko, 1
☎ 943 74 1 2 80

AZPELETA

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

BETI ARGÍ

Errosario, 6
☎ 943 74 16 44

URZELAI

Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76

IT_,731E VU1

ANTONIO MARKEZ

Urasandi, 24
☎ 943 74 34 18

ASKETA

Osio, 7 DEBA
☎ 629 34 43 89

JOSE LUIS MENDEZ

Urasandi, 24
☎ 943 74 29 87
☎ 689 58 47 23

IPINTZA

Trenbide, 25
☎ 630 95 97 58-7
Faxa: 943 74 45 97

ELGOIBARKO
EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

MATRIKULAZIOA

IKASTURTEA: 2000-2001

HAUR, LEHEN eta DERRIGORREZKO
B1GARREN HEZKUNTZAKO IKASTETXEETAN.

Otsailaren 7tik 18ra.

Herri berriaren eredu

Herri Eskolako Ate Irekien Eguna, otsailaren 12.5,1



Elgoibarko Herri Eskola

Kalamua, 8

Tel.: 943 74 08 79

E-maila: info.elgoibar@educanetnet



EUSKIN AURURITZA

HEZKUNTZA
UNIBERTSITATE eta
1KERKETA SAILA

Elgoibarko Institutua

San Roke, 1 . Arregitorre, 2

Tel.: 943 74 80 19

E-maila: bulegoa@eigoibar.hezitek.net